



EUSKAL ZUZENTASUN SISTEMA

Gobernu Irekirako Aliantzak (hemendik aurrera [OGP Euskadi](#)) Euskadirako duen helburuetako bat da euskal zuzentasun eredu bat garatzea, euskal erakunde publikoetan erantzukizun politikoa duten pertsonen eta langileen jardunbide etikoak bultzatuko dituen, gizartearentzat eredu izateko balioko duena eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza indartzen lagunduko duena.

Zuzentasun sistema bat prebentzioan oinarritutako sistema da, zerbitzu publikoan dihardutenen jarduera etikoa bultzatzeko asmoa duena, arau batzuen bitartez eta kontrolerako eta jarraipenerako tresna batzuen bitartez.

Eredua diseinatzeko orduan, ondorengo arloak landuko ditugu:

- 1) Etika Publikoaren eta Zuzentasunaren printzipioak
- 2) Eredua osatuko duten elementuak
- 3) Euskal Zuzentasun Behatokia

1) ETIKAREN ETA ZUZENTASUNAREN PRINTZIBIOAK

Lehenik eta behin galdera honi erantzun behar diogu: zer da jardunbide etiko bat?



Jardunbide etikoa **adostu behar diren printzipio eta balore jakin batzuen arabera egindako jardunbidea da**, printzipio eta balore hauek egingo baitute jardunbidea etikoa izatea. Adostasunean oinarritutako kontzeptu honen gainean eraikiko dugu zuzentasun sistema.

Hauek dira OGP Euskadiren ustez, euskal erakundeek jarraitu beharreko Etika eta Zuzentasunaren printzipio nagusiak:





INTERES OROKORRA:

Hau da, guztion onura bilatzea.

Erakunde publikoen helburu nagusia da guztion onura bilatzea, hau da, guztiok partekatua eta guztiontzat onuragarria dena zaintzea; horretarako jardunbide desegokiak ezabatuz (baliabideak xahutzea, informazio pribilegiatua gaizki erabiltzea, interes pertsonalak lehenestea, komisioak edo opariak onartzea, etab.).



ERRESPETUA ETA IREKITZEA:

Hau da, herritarrei begira eta herritarrekin lan egitea.

Errespetuaren printzipioa oinarritzen da herritarrak duintasunez tratatzean, hau da, kontzientzia, askatasuna eta eskubideak dituzten subjektu moduan. Baita subjektu aktibo bezala, hau da, politika publikoetan parte hartzen duten eragile eta laguntzaile bezala.



ERAGINKORTASUNA/ONDORIO ONAK:

Hau da, gauzak ongi egitea emaitza onak lortzeko.

Printzipio orokor horrek balioztatzen du alde batetik jarduera publikoaren bitartez lortzen diren emaitzak egokiak diren ala ez, eta bestetik helburu hauek lortzeko baliabideen erabilera egokiena egin den; azken helburua baita herritarren ongizatea eta bizitza kalitatea lortzea administrazio onaren bitartez.

2) EREDUA OSATUKO DUTEN ELEMENTUAK

Euskal Zuzentasun Sistemak zenbait kudeaketa-elementu definituko ditu, euskal erakundeetan ezarpena gidatuko dutenak. Elementu hauek bermatuko dute sistemaren helburua lortzen dela, hau da, jardunbide etiko eta zuzenak bultzatzea erakundeetako kargudun eta langileen artean, eta jarduera arlo ezberdinetan, eta herritar, elkarte eta enpresentzat eredugarri izatea.

Hauek dira OGP Euskadiren ustez, erakunde baten zuzentasun sistemak izan beharko lituzkeen elementuak:





KODEAK/ARAUAK/ESKULIBURUAK:

Erakundeak dokumentu multzo batean jasoko ditu zerbitzu publikoa ematen duten pertsonen aplikagarri zaizkien printzipio eta balio etikoak, hauek zein jardunbide zehatzetan gauzatuko diren, eta batez ere zein jardunbide ez diren onargarriak izango. Formatua edozein delarik, dokumentu hauek ondorengo bete beharko dute:

- Zuzentasunaren eta Etikaren printzipio nagusiak jasoko dituzte
- Argiak eta ulerterrazak izango dira
- Eragile edo jardunbide mota bakoitzarentzat espero den jardunbidea ongi zehaztuko dute (kargudunak, administrazio-langileak, sanitarioak, irakasleak, etab.)
- Prozesu parte hartzaileen bitartez definituko dira
- Etengabe berrikusi eta hobetuko dira
- Erakundearen ohiko kudeaketa prozesuetan txertatuko dira



BERME ORGANOA:

Erakundeak zuzentasun kode/arau/eskuliburuak bete eta era egokian aplikatuko direla bermatzeko kontrolerako organo bat erreferentetzat hartu edo sortuko du, ondorengo ezaugarriak izango dituena:

- Organo independentea izango da
- Gardena izango da, osieran eta jardueretan ere bai
- Landuko dituen gaien konfidentzialtasuna ziurtatuko du

Hauek izango dira bere funtzioak:

- Sistemaren jarraipena egitea
- Erakundeko jardunbide etikoaren kontrola egitea
- Kontsultak ebatzea
- Hobekuntzak proposatzea



PRESTAKUNTZA ETA ZABALKUNTZA EKIMENAK:

Erakundeak zuzentasun sistema zabaltzeko ekimenak abian jarriko ditu, bai erakundearen barnean langile eta kargudunei prestakuntza emanez, baita kanpora begira ere, herritarrei, enpresei, elkartei eta oro har gizarteari sistema zabalduz. Ondorengo ekimenak egingo dira, besteak beste:

- Prestakuntza programak
- Gizartean zuzentasun sistemak zabaltzeko ekimenak
- Zuzentasun Sistemaren urteroko memoriak argitaratzea



SALAKETAK, GATAZKAK ETA KONTSULTAK BIDERATZEKO SISTEMA:

Erakundeak sistema bat ezarriko du etika eta zuzentasunaren inguruan kontsultak egin ahal izateko, sor daitezkeen gatazkak kudeatzeko eta jardunbide desegokien aurrean salaketak egin ahal izateko, ondorengo ezaugarriekin:

- Salaketa anonimoak egiteko aukera emango da hala eskatzen bada
- Salatzailea balizko errepresalien aurrean babesteko neurriak hartuko dira
- Salaketak fede onez egiten direla bermatzeko neurriak hartuko dira
- Erakundeak jasotako kontsulta eta salaketei erantzuteko konpromisoa hartuko du



NEURKETA SISTEMA:

Sistemaren helburuak betetzen ari den ala ez jakiteko erakundeak beharrezkoa du neurketak egitea, batez ere herritarrek erakundeengan duten konfiantzan sistema izaten ari den eragina ezagutzeko. Horretarako, ondorengo neurketa sistemak ezarriko ahal izango dira:

- Gizartean izandako eraginaren neurketa inkesten edo antzekoen bitartez
- Erakundeek sistemen ebaluaketak egitea herritarren partaidetzarekin

3) EUSKAL ZUZENTASUN BEHATOKIA



Euskal erakundeek ezarri beharreko elementu hauetaz gain, OGP Euskadik Euskal Zuzentasun Behatokia sortzea proposatu nahi du, erakundeen artean koordinazio eta zabalkunde lanak egingo dituen. Gainera, ondorengo ezaugarriak izango ditu:

- Partaidetza anitza izango du, erakunde, aditu, erakunde eta herritarren presentziarekin
- Etika eta zuzentasunaren inguruan ondorengo jarduerak bultzatuko ditu:
 - Hausnarketa
 - Ikerketa akademikoa eta praktikoa
 - Praktika onak identifikatzea
 - Prestakuntzarako materialak sortzea
 - Nazioarteko erakundeekin aliantzak sortzea
- Sistemaren eboluzioa bultzatuko du, aldaketei egokitzuz eta berrituz